

## **KONTROL MOZIOA**

### **TRINITATE PLAZAKO FRONTOIAREN MANTENUA DELA ETA**

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeetako zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko azaroaren 11n Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Trinitate plaza Luis Peña Gantxegi arkitektoak diseinatu zuen, eta bere lehen obra garrantzitsuetako bat izan zen. Zehazki, 1963ko irailean zabaldu zuten plaza berritua, 100 urte lehenago bota zituzten harresien eraistea ospatzeko. Urteen poderioz, hainbat aldaketa izan ditu plazak; herri kiroletarako erabiltzen zen proba-lekua, esaterako, kirol anitzetarako kantxa bihurtu zuten, plazara ematen duen San Telmoko horma ere berritu egin zuten, sarbideetan hesiak jarri zituzten, komun publiko bat jarri zuten...

“Trinitate plaza monumentu bat bada, horrela tratatu behar da” aipatu zuen Jose Arrizabalagak, 2015eko ekainaren 10ean. Hain zuzen ere, ondare izendatu zuten 2013an. Eta 2015eko agerraldi batean arkitekto talde batek adierazi zuen bezala, XX. mendeko Kultura Ondarea Kontserbatzeko Espainiako Planean jaso dituzten 256 lanen artean, espazio publiko bakarra da Trinitate plaza. Zehazki, DOCOMOMO saria jaso zuen 2013an Trinitate plazak. Hala, Iberiar Penintsulako arkitektura modernoaren ondare izendatu zuten, nazioarteko aitzatespena jasoz. Urte hartan bertan, hilabete lehenago, 50 urte bete zituen Trinitate plazak.

Donostiako frontoirik erabilienetakoa da Parte Zaharreko Trinitate plazakoa. Horrez gain, eta Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren justifikazioan adierazi bezala, auzoarentzat funtzio garrantzitsua betetzen du; izan ere, azpiegitura komunitarioen behar nabarmena duen auzoa da Parte Zaharra. Hala eta guztiz ere, erdialdeko auzoa izanik, ohikoa da ekitaldi eta ospakizun

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

ezberdinak direla medio, espazioa kirolerako ez beste erabilera batzuetarako erabiltzea. Egoera honi, frontoiaren mantenuari lotutako arazoak gehitzen zaizkio. Izan ere, erabiltzeek behin eta berriro salatu dutenez, erabilera ugariaren eta estaldurarik ez edukitzearen ondorioz, frontoia egoera eta baldintza kaxkarretan aurkitu ohi da aldian-aldian. Honetaz interpelatuta, Kiroletako zinegotzi ordezkariak ez zuen konpromiso garbirik hartu arazo honi heltzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Trinitate plazako frontoiaren erabiltzaileekin batera -besteak beste Alde Zaharra Kirol Elkartea eta Orixe ikastola-- espazioaren mantenu egokirako eta iraunkorrerako neurriak landu ditzala.

Donostian, 2019ko azaroaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**

06  
2011-  
10655  
69  
01200  
11  
TEL  
2007  
11  
711